



ALBOAN

www.alboan.org



Zenbait gakoren bila, lankidetza deszentralizatua eta jarduera humanitaria hobetze aldera



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ALBOAN Lankidetzak koadernoak

1. Lankidetzak deszentralizatua eztabaidan
2. Eraginkortasunari esanahi berria ematen. Gure proposamena
3. Mundua aldaketa sakonean. Lankidetzaren esparruko erakundeen testuinguruari eta erronkei buruzko hausnarketa
4. Iragana aitortu etorkizunera begiratzeko: euskal lankidetzak deszentralizatua instituzionalizazioaren eta krisiaren artean
5. Iragana aitortu etorkizunera begiratzeko: hezkuntza mobilizazioarekiko sentsibilizazioa garatzeko
6. Zenbait gakoren bila, lankidetzak deszentralizatua eta jarduera humanitarioa hobetze aldera
7. Espezializatu al daiteke lankidetzak deszentralizatua deszentralizaziorako laguntzan?
8. Tokiko eta eskualdeko garapen ekonomiko alternatiboko prozesuak. Lankidetzak deszentralizatuaren apustua
9. Generoaren eraginkortasuna; edo generoa, eraginkortasunaren ikuspegia oinarri hartuta
10. Bide-laguntza, eraginkortasunerako gako

Zenbait gakoren bila, lankidetzza deszentralizatua eta jarduera humanitaria hobetze aldera



Argitaratzailea:

ALBOAN

Aita Lojendio 2, 2. • 48008 Bilbo

Tel.: 944 151 135 • Faxa: 944 161 938

Barañain Etorbidea 2 • 31011 Iruñea

Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308

Andia, 3 • 20004 Donostia

Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267

Estenaga Monsinorea, 1 • 01002 Gasteiz

Tel.: 945 202 676 • Faxa: 945 202 676

alboan@alboan.org

www.alboan.org

Egilea: Mary Tere Guzmán, Cristina Churruca eta Octavio Romano

Itzulpena: Bakun

2013. urtea

Azala: Muxotepotolobat

Diseinu eta maketazioa: Marra, S.L.

Imprimaketa: Lankopi, S.A.

Lege-gordailua: Bi-1272-2014

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, beti ere helburu komertzialik ez badu eta iturburu apaizten baldin bada.

Aurkibidea

| | |
|---|----|
| 1. Aurkezpena | 5 |
| 2. Jarduera Humanitarioaren gaur egungo testuingurua | 9 |
| 3. Lankidetzeta Deszentralizatu eta Jarduera Humanitarioa | 15 |
| 3.1. Jarduera Humanitarioa zenbakitan | 18 |
| 4. Jarduera Humanitarioa Euskadin | 25 |
| 4.1. Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Humanitarioa | 25 |
| 4.2. Lekuan lekuko erakundeen Jarduera Humanitarioa | 31 |
| 5. Euskadiko Jarduera Humanitarioa hobetzearen aldeko zenbait gomendio | 35 |
| 5.1. Gomendio orokorrak | 35 |
| 5.2. Gomendio espezifikoak | 39 |
| 6. Bibliografia | 45 |

1. Aurkezpena

Gaur egun nagusi den testuinguruan, erronka konplexu askori egin behar diegu aurre. Klima-aldaketa, natura-baliabideekin lotutako gatazkak, gure planetako hainbat eta hainbat bazterretan nagusi den gizarte-polarizazio eskandalagarria. Horiek guztiek milioika pertsona zaugarrik bizi duten krisia areagotu besterik ez dute egin, eta bizia salbatzeko lekuz aldatzera eta errefuxiatzera behartu ditu. **Krisi humanitarioek gora egin dute**, eta, klima-aldaketa dela tarteko, lekualdutako pertsonen kopuruak ere nabarmen egingo du gora datozen urteetan.

Gatazka armatuak nagusi dira munduko hainbat eskualdetan, eta estatu asko eta asko ez dira gai (dela ahuleziagatik, dela porrot egin dutelako) biktimei behar duten babesa emateko. Egia da gatazka armatuek behera egin dutela zenbait lekutan (Afrikan, esate baterako), baina, edonola ere, badira, horiez gain, beste gatazka batzuk ere, intentsitateko baxuko indarkeria nagusi dutenak eta krisi humanitarioak luzatzen dituztenak. Nazioarteko komunitateak ezin du beste alde batera begiratu; bere gain hartu behar du kaltetutako pertsona guztiei beren eskubideak aitortu eta premiak asetzeko ardura. Horrek kolokan jartzen du, nazioarteko lankidetzaz ez ezik, baita gure artean sustatu ohi den garapen-eredua ere, milaka pertsona **muga-mugan jarri baititu, deshumanizazioaren ertzetan**.

Garbi dago, beraz, gaur egungo munduan Jarduera Humanitarioa ezinbestekoa dela; baina, dena dela, eragile humanitario publiko nahiz pribatuek sare-egitura konplexu, korapilatsu eta aldakor horri nola egin diezaioketen aurre, horixe da gako eta galdera nagusia. Lekuan lekuko gure lanek emandako eskarmentuari esker, **mende erdi baino gehiago daramagu ikasten**, eta horren ondorio dira Jarduera Humanitarioaren eraginkortasunaz, kalitateaz eta eraginaz egiten ditugun

gogoetok. Asko izan dira porrot egin duten ekimenak, eta horietatik erruz ikasi dugu; zenbait esperientzia aberasgarri ere izan dira, ordea, bai eta biak, arrakasta nahiz porrota, izan dutenak ere.

Gure ustez, giza garapenaren eraginkortasunari buruzko **marko zabalago** baten barruan ez bada, garapenerako lankidetzaren eta Dohaintza Humanitario Onaren eraginkortasunari buruzko eztabaidak ez du zentzu askorik. Eztabaida hori indartuko bada, beharrezkoa da sisteman parte hartzen duten eragileek beren lanari buruz berariaz gogoeta egitea, esku artean darabiltzaten diskurtso eta agendak kritikoki aztertu eta atzera ere denen artean modu propositiboan berregiteko.

Horrenbestez, beharrezkoa da, gure iritziz, Jarduera Humanitarioan lan egiten duten talde eta erakundeek ondo jakitea gaur egungo lankidetzaren deszentralizaturaren iristeko **zer bide urratu eta zer mekanismo jarri diren martxan**, eta bestalde, **lankidetzaren deszentralizatuaren** diharduten eragileek ondo barneratzea talde eta erakunde horien **proposamen eta eskabideak**. Lekuan-lekuan elkarrekin lanean diharduten talde eta erakundeen eskarmentu eta ezaguerak oinarri-oinarritzakoak dira gure Jarduera Humanitarioa hobetzeko, eta beraz, ezinbestekoa da elkarri entzuteko zenbait gune eta esparru sortzea, norberak jokatzeko duen papera abiapuntutzat hartuta gure lanean aurrera egiten lagunduko dituzten gakoak sakon aztertzeko.

Horretarako, **bi gune espezifiko** antolatu ditugu, Jarduera Humanitarioaren esparruan lankidetzaren deszentralizatuaren eraginkortasunaz eztabaidatu eta denon artean ikasteko. Horretan aurrera egite aldera, 2011n *Jarduera Humanitarioaren eraginkortasunari buruzko lan-saioa* antolatu zen Loiolan, Gipuzkoan. Gune horretan, Jarduera Humanitarioaren erronka nagusiei buruz gogoeta egin genuen, eta alde horretatik, eztabaidagai izan genuen lankidetzaren deszentralizatuak zer ekarpen zehatz egin diezaiokeen hari. Dokumentu honetan jasotzen dira, labur-labur, saio hartan egindakoen ondorio eta gomendio nagusiak.

2013ko apirilean, Deustuko Unibertsitateko Giza Eskubideen Pedro Arrupe Institutuak antolatzen duen Jarduera Humanitarioari buruzko masterrarekin batera, *Jarduera Humanitarioa krisian* izeneko mintegia antolatu genuen, eta bertan, zenbait eragilek (governuz kanpoko erakundeetako ordezkariak, aholkulariak, irakasleak eta administrazio publikoko ordezkariak) krisi-testuinguru honetan Jarduera Humanitarioak zer etorkizun duen eztabaidatu eta denon artean gogoe-ta egin genuen.

Esparru hori oinarri hartuta, **ALBOANek** asmo argi bat du: gure taldeek lekuan-lekuan egindako lana erkatzea eta gure esperientzia abiapuntutzat hartuta **eraginkortasuna ulertzeko gakoak proposatzea** eta horri buruz eztabaidatzea, alegia.

Jarduera Humanitarioaren eta lankidetzazko deszentralizatuaren inguruan antolatutako ekitaldi horiek guztiak eta orobat argitalpen hau ez ziratekeen posible izango bi erakunde hauei esker ez balitz: **Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (GLEA)** eta **Deustuko Unibertsitateko Jarduera Humanitarioari buruzko Masterra**. Eskerrak eman nahi dizkiegu, halaber, bere ekarpen baliotsuengatik, **Gatazkei eta Jarduera Humanitarioari buruzko Ikerketetarako Institutuari (IECAH)**, Ignacio Martíni (GLEAren aholkulari izan zen 2011. urtean), eta batez ere, beren parte-hartzeagatik, Jarduera Humanitarioaren esparruan eta zenbait testuinguru humanitariotan gizon-emakumeen aldeko gure jardueretan aliatu izan dugun **Errefuxiatuen aldeko Jesuiten Zerbitzuak** mundu zabaleko hainbat eskualde eta herrialdetatik bidalitako ordezkariak.

Krisia eta nazioarteko elkartasunaren deslegitimazioa nagusi diren garaiotan, errealitatera jo eta Jarduera Humanitarioaren eraginkortasunari buruz gogoeta egitea dugu motibazio nagusi, eta hori dela tarteko, behin eta berriz azpimarratu nahi dugu lankidetzazko deszentralizatuari buruz gauza baliagarri asko ikasi behar direla, eraginkortasunean eta gure jarduera humanitarioen kalitatean aurrera egingo badugu.

2. Jarduera Humanitarioaren gaur egungo testuingurua¹

2011. urtean, krisi humanitarioek nabarmen egin zuten gora (dela Japoniako lurrikara, dela Afrikako Adarreko lehorreak eragin eta bertako gatazkek korapilatutako gosetea, dela, oro har, mundu zabalean aspaldi piztutako beste zenbait krisi) eta horrek kinka larrian jarri zuen laguntza humanitarioaren aldeko nazioarteko sistemaren erantzuteko gaitasuna. Laguntza humanitarioari dagokionez, sektoreak gero eta ahalmen handiagoa duen arren, emaileen ohitura onak ez dira behar beste sendotu, eta alde horretatik, beraz, sektorearen erreforma mugatua izan da. Sistema humanitaria erreformatzen urte asko badaramatzagu ere, Somaliako gatazkari emandako erantzuna ez zen behar bezalakoa izan, berandu iritsi ginen, eta bertako premia humanitarioak alderdikierarik gabe eta modu egokian aztertu ordez, hedabideetan agertutakoak bultzatuta jokatu genuen.

Premia humanitarioen eta eskura ditugun baliabideen arteko osina gero eta sakonagoa da, eta mundu-mailako ekonomian atzeraldia da nagusi. Edonola ere, Jarduera Humanitaria inoiz baino garrantzitsuagoa da gaur egun. Nazioarteko komunitateak ez luke beste alde batera begiratu behar, ez lituzke pertsona horien guztien premiak eta eskubideak ahaztu behar. Iaz abian jarri zuen Nazio Batuen Erakundeak laguntza humanitarioan aurrera egiteko inoiz eskatutako funts konsolidatu handiena (5,7 mila milioi euro). Nolanahi ere, aurreko urtearen aldean, 2011. urtean, 15 urtean lehen aldiz, Garapenerako Laguntza Ofiziala (GLO) murriztu egin zuten; zehatz esatera, 2010. urtearen aldean, laguntza ofiziala %2,7 murriztu zen (termino errealetan). 2011n, Europako zenbait estatutan, hala nola

¹ Atal hau **Cristina Churrucak** idatzi du. Cristina Churruca Deustuko Unibertsitateko Giza Eskubideen Pedro Arrupe Institutuko NOHA masterraren zuzendaria da.

Espanian eta Grezian, Garapenerako Laguntza Ofiziala murriztu egin zuten, eta zazpi estatutan baino ez zen laguntza hori igo². Horrek kolokan jartzen du, nazioarteko lankidetzak ez ezik, baita gure artean sustatutako garapen-eredua ere, milioika gizaki baztertu eta bidegabekeriarik latzenak pairatzera kondenatzen baititu.

2011ko Erantzun Humanitarioari buruzko Indizeak (EHI) dioenez, gobernuek laguntza humanitarioko aurrekontuak ez dira modu eraginkorrean erabiltzen, herrialde ahulenen kaltetan. Kontuan hartuta aztertutako krisi gehienak aurreikus zitezkeela, garbi dago nazioarteko komunitatea ez dela gai erresistentzia indartuz eta gatazkei aurre egiteko ahalmenean urratsak eginez zaugarritasun kronikoaren aurka ezertxo ere egiteko; horren erakusgarri dugu, adibidez, Afrikako Adarreko gosetea. Era berean, nabarmena da gobernu emailek ez dutela behar bezain garden eta arduratsu jokatzeko, krisiak jota dauden herrialdeetan, batez ere. Kolonbia, Haiti, Pakistan, Somalia eta Sudani dagokienez, Erantzun Humanitarioari buruzko Indizean garbi ikus daitekeenez, laguntza-asignazioekin lotutako erabakiak ez dira behar bezain gardenak izaten, ez eta xede humanitarioetan oinarrituta hartzen ere. Are gehiago, gobernu emailek, oro har, batere xehetasunik gabe ematen dute beren laguntzaren berri.

Dagoeneko bi urte igaro dira Garapenerako Laguntza Batzordeak akordio bat egin eta herrialde emailetako hornitzaileei ondasun nahiz zerbitzuak erosteko ematen zitzaizkien laguntzak apurka-apurka deslotzeko adostasuna lortu zuenetik. Hala izan bada ere, ActionAid GKE-aren arabera, zenbait kontutan aurrera egin da, baina oraindik asko dira esku artean ditugun erronkak. Espainiari dagokionez, GLOren %50 inguru bertako ondasun eta zerbitzuak eskuratzearekin lotuta omen dago. Diru-laguntza horiekin, nazioartean lehiakide dituzten enpresengandik babestu nahi izaten dituzte herrialde emailek beren enpresak, eta horrek, jakina, kostuak areagotzeaz batera, zenbait alderdi baztertu beharra dakar, ezinbestez: gure laguntzek helburu dituzten herrialdeek garapen-prozesuetan parte hartzeko duten gaitasuna ezin sendotzea, nagusiki.

Orobat, hainbat gobernuren segurtasun-irizpideak eta agenda politiko zein ekonomikoa direla tarteko, laguntza humanitarioan gabiltzan zenbait elkarteren eraginkortasuna bera ahuldu egiten da, eta herrialde zaugarrienekin lanean

² Ikus *"The 2011 decrease in aid from DAC donors: a new era?"* izeneko txostena. Horretarako, jo webgune honetara: <http://www.globalhumanitarianassistance.org/the-2011-decrease-in-aid-from-dac-donors-a-new-era-3568.html> (2012ko apirilaren 12an irakurria).

jarduteko eta haiei inolako diskriminaziorik gabe laguntzeko aukera zapuztu. Terrorismoaren aurka borrokatze aldera zenbait gobernuak egindako legeen ondorioz, gaur egun hamaikatxo oztopo izaten dira krisi bete-betean dauden herrialdeetara iristeko; horren eredu ditugu, besteak beste, Somalia eta Palestinako lurralde okupatuak. Horrek guztiak, bistan denez, oso ondorio larriak ditu, eta gainerako emaileei eragiteaz gain, krisiak are larriago bihurtzen ditu. Aldi berean, zenbait herrialdetan, ezinezkoa izaten da bertako herritarrengana iritsi eta zibilak babestea, dela bertako agintarien interes politikoengatik, dela talde armatuen jardueragatik.

Datozen urteetan erabakiko da zer etorkizun duen printzipioetan oinarritutako Jarduera Humanitarioak, eta horretan, funtsezkoa da gaur egungo eta datozen urteetako bilakaerak nora garamatzen ikustea: zaurgarritasunaren eragileak zein diren eta gizon-emakumeak sufritzen ari diren eskualdeetan elkarrekin lehian ari den eragile- eta interes-sare konplexu horrek zer bide egiten duen jakitea, alegia. Erronkak, beraz, asko dira; hona hemen horietako batzuk: klimarekin lotutako hondamendien gorakada; HIESa eta beste gaixotasun kutsakor eta epidemia batzuk; indarkeria, emakumeen eta adin txikikoen aurkakoa, batik bat; energia-baliabideen jabe izateko aukerak; elikagaien krisia eta krisi finantzarioa; muturreko pobrezia; hirigintza, ur-eskasia eta energia-segurtasuna; migrazioa eta populazio-hazkundera; tokian-tokian nagusi diren hedabide gutzit aldaberak, herritarrek beren erabakiak hartzea galarazten dutenak; eta azkenik, dohaintza humanitarioaren eta nazioarteko zuzenbidearen printzipio eta jardunbideak oinarri dituen Jarduera Humanitarioarenganako konfiantzaren gainbehera.

Erronka horiei garaiz aurre egitea, onenean ere, zeregin konplexua da -kontuan harturik, gainera, tartean hainbat faktore daudela: ekonomikoak, legalak, demografikoak, ingurumenarekin lotutakoak, bai eta teknologikoak ere³; baina, edonola ere, guttiz begi-bistakoa da erronka horien ondorio indibidual nahiz konbinatuek forma halako bat eman diotela nazioarteko Jarduera Humanitarioari, eta aurrerantzean ere halaxe izaten jarraituko duela. Intermon-Oxfamek berriki argitaratutako txosten batek dioenez⁴, oso litekeena da Jarduera Humanitarioa gero eta beharrezkoagoa izatea, hiru joera hauek mundu osoan nagusitu ahala: batetik,

³ Teknologia berriek erro-errotik irauli dituzte informazioarekin lotutako alderdi guztiak. Alde horretatik, onuradunek berek gaur egun aukera handiak dituzte beren laguntza humanitarioari nahi duten forma eman eta horretan sakontzeko. Era berean, berrikuntza horiei gutzietan esker, baliabide humanitario tradizionalak baztertu egin dira azkenaldian, eta teknologia berriak bultzatu: esku-dirua eta baleak, telefono mugikorrekin lotutako teknologia, kontsulta medikoak webguneetan egiteko aukera...

⁴ Oxfam, (2012). *Crisis en un nuevo orden mundial. Un desafío para la AH*, Oxfam-en 158. Txostena, 2012ko otsailaren 7a.

edozein motatako hondamendiak pairatu ditzaketen pertsonen kopurua gora egitea; bestetik, klimarekin lotutako hondamendien kopurua gora egitea; eta hirugarrenik, gatazkei aurre egiteko eta estatu ahulenak bake-bidean jarri eta herrialde horien garapen iraunkorra bermatzeko gai ez izatea.

Laburbilduz, hona hemen gure erronka garrantzitsuena: gaur egun nagusi den krisiaren kausei eta eragileei aurre egitea, eta aldi berean, eredu erreaktibo bati itsu-itsu jarraitzen dion sektore humanitarioa erro-errotik aldatzea, arazoak aurreikusteko gai izan dadin, eta beraz, aurrerantzean atzera ere krisialdiak gertatzeko arriskua eta premian daudenen zaurgarritasuna gutxitu daitezten. Ezinbestekoa da, Jarduera Humanitarioa hobetuko badugu, elkarlanean eta aliantzetan aurrera egitea, gogoan harturik egoera politikoa eta Jarduera Humanitarioa bera gero eta konplexuagoak direla eta Garapenerako Laguntza Ofizialak, berriz, behera egin duela. Dena dela, auzi horiei guztiei buruzko dokumentazio ugari dagoenez, atal honetan beste bide batetik joko dugu. Alde batetik, gaur egungo krisi humanitarioekin lotutako zenbait ezaugarriren berri emango dugu, eta horrekin estu lotuta, etengabe aldatzen ari den arkitektura humanitarioa zertan den azalduko; eta beste alde batetik, berriz, egitura hori guztia krisiei eraginkortasunez aurre egiteko gai ote den aztertze aldera, lankidetzaz deszentralizatuak etorkizunik ba ote duen ikusiko dugu.

- 1. Luzeegi dirauten krisiak:** Gaur egun, herrialde txiki askotan krisialdiek luzeegi diraute, eta hori dela eta, gure agenda humanitarioak haiei begira jarri ditugu. Haien egoera, bistan denez, oso konplexua da, tartean faktore asko baitaude: indarkeria, natura-hondamendiak, hainbat eragile, berdintasunik eza, eta epe labur nahiz luzean lortu nahi izaten diren xedeen aldakortasuna, besteak beste.
- 2. Inbertsiorik eza i) larrialdi-egoerei aurre egiten ikasteko prestakuntza-lanetarako; ii) hondamendiak gertatzeko arriskuak gutxitzeko; iii) erresilientzia garatzeko; eta iv) laguntza humanitarioaren, birgaitzearen eta garapenaren arteko loturetan sakontzeko.** Nazioartean gero eta herrialde gehiagok ikusten dute garbi behar-beharrezkoa dela lau ardatz horietan sakontzea, baina, edonola ere, diru-inbertsioak txikia izaten jarraitzen du, nahiz eta dirua inbertitzea ezinbestekoa den, komunitateek hondamendiei eta krisialdiei aurre egiteko modua izan dezaten. Han-hemenka gertatutako hainbat hondamendik (hala nola Haitiko lurrikarak, Pakistango uholdeek eta Afrikako Adarreko goseteek) garbi utzi dute zer-nolako ondorioak dituen, arriskuak aurreikusteari eta errekonstruzio- eta garapen-ahaleginei dagokienez, gobernu emaileek beren konpromisoak tinko ez eustekak.

3. Jarduera humanitarioetan aritzen diren eragileen ugaritzea. Jarduera humanitarioetan aritzen den eragile-espektroa oso zabala da; tartean daude, besteak beste, sektore pribatua eta GKE-ak, bai eta armada bera ere. Horren ondorioz, laguntza humanitarioan diharduten eragileen egoera nabarmen lausotu da, orain arte horretan aritu diren eragileen zeregina bera ere askoz ilunagoa baita gaur egun.

Alde batetik, natura-hondamendi larrienei dagokienez, orain arte horretan aritu diren eragile humanitarioak arriskuan daude, beste eragile batzuen gorakada dela tarteko, hala nola armadarena eta babes zibileko indarra, askoz baliabide finantzario eta logistiko gehiago baituzte.

Beste alde batetik, gatazka armatua bizi duten herrialdeen kasuan, eragile berri horietako zenbaitek modu “pragmatikoan” erantzuten diote printzipioetan oinarritutako Jarduera Humanitarioari, beren helburu politiko nahiz militarrek indartze aldera. Hori guztia dela tarteko, zenbait printzipiori (neutraltasunarenari eta inpartzialtasunarenari, esate baterako) eusten dieten eragile humanitario tradizionalen egoera larria da: baztertu egiten dituzte, eta beraz, beren segurtasuna kinkan jartzen. Horrenbestez, oso litekeena da laguntza-lanetan dihardutenen, laguntza jasotzen dutenen eta gatazketan nahasita dauden alderdien artean beharrezkoa den konfiantza zapuztea denboraren poderioz.

4. Gaur egun indarrean den arkitektura humanitaria zalantzan jarri beharra:

Operazio humanitarioetan nahasita dauden eragileen kopuruak gora egin du, eta estatuek (eta armadek) gero eta garrantzi handiagoa dute haietan. Horrek guztiak kolokan jartzen du gaur egun indarrean den arkitektura humanitaria, bai eta haren koordinazio-mekanismoak ere, eragile humanitario tradizionalentzat eginak baitaude nagusiki. Koordinazioa hobetzea helburu hartuta, ezinbestekotzat jotzen da, krisialdiei modu aldeaniztun batean aurre egite aldera, emaile ez-tradizionalen arteko lankidetzan aurrera egitea. Nolanahi ere, lekuan lekuko talde eta erakundeekin lanean jardun beharrean, nazioarteko laguntzan diharduten eragile gutxi batzuek baino ez dute beren lanaren eragina maximizatzen. Herrialde askotan, gainera, Mendebaldeko erakunde humanitarioen aurkako gero eta arbuio handiagoa sentitzen du jendeak.

Beraz, argi dago nazioarteko GKE-ak eta Nazio Batuen Erakundea egin beharreko lanaren zati bat baizik ez direla. Emaile berriek eta mundu zabaleko GKE-ek nahikoa lan egiten dute laguntza humanitarioan. Nazio Batuen Erakundeak eta nazioarteko GKE-ek funtsezkoak izaten jarraituko dute, baina haien lana aztertzean gero eta garrantzi handiagoa izango du beste eragile

batzuen alde zer egiten duten, eta lan hori osatzeko zer ahalmen duten jakitea. Beraz, haien berariazko egitekoa hauxe izango da: eragile humanitario guztiek Jarduera Humanitarioaren printzipioak errespetatu dituzaten saiatzea.

Kontuak kontu, guztiz ezaugarri bereziak dituen Euskadiko lankidetzari dago-kionez⁵, galdera edo gako nagusia da jakitea zer ekarpen egin diezaiotkegun guk premia larrienei erantzutea helburu duen lankidetzaren sare konplexu horri. Neurri batean gaur egungo sistemaren eraginkortasun-erak sortutako kezka bultzaturik, gobernu, emaile eta, oro har, sistema humanitarioak berak laguntzaren arkitektura berria eraikitzeari ekin diote, lekuan lekuko apropiazioa eta lidergoa ardatz hartuta. Izan ere, Jarduera Humanitarioaren geroaren gako lekuan lekuko agintarien esku dago, bai eta gatazka batean eta hondamendiek itota bizi diren herrialdeetako gizarte zibilarenean ere. Alde horretatik, beraz, haien ahalmen eta gaitasunak indartzea, horrexek behar luke Jarduera Humanitarioaren egitekorik behinena, garapeneraren alorrean ere halaxe izan denez joan den urteetan.

Datozen urteetan, krisiak jota dauden herrialdeetako gobernu eta gizarte zibilaren esku egongo da, batez ere, Jarduera Humanitaria. **Testuinguru horretan, gobernu kanpoko erakundeekin batera lan eginez garatutako lankidetzaren deszentralizatuak berebiziko garrantzia duela argi dago, Hegoaldeko herrialdeetako gizarte zibilarekin lotura estuak baititu.** Iparraldeko nahiz Hegoaldeko gizon-emakumeenganako **gertutasuna** eta lekuan lekuko testuinguruan errotutako proposamenak egiteko gaitasuna, bi horiek dira, inolako zalantzarik gabe, **lankidetzaren deszentralizatuaren bi balio erantsi nagusiak. Partaidetza, balioen aldeko defentsa,** departamentuen arteko **osagarritasun eta koordinazioa, erakundeen eta gizarte zibilaren arteko sare-harremanak,** sinesgarritasuna eta konfiantza: horiek guztiak sustatzen ditu, edo susta ditzake, lankidetzaren deszentralizatuak. Gaur egun, hain zuzen, krisi ekonomikoa nagusi den garaioan, **Garapenerako Hezkuntza** garrantzi handiko baliabide bilakatu zaigu, haren zeregina funtsezkoa baita: krisi humanitarioen egiturazko kausak salatzea, batetik, eta krisi horiei aurre egite aldera, gizartean loturak eta partaidetza sortzeko moduak sustatzea, bestetik.

⁵ Ezaugarri horien berri geroago emango dugun arren, aipa dezagun zerekin dauden lotuta: funtsen zenbatekoarekin, GKE-ek funts publikoen kudeaketan izan beharreko garrantziarekin, Euskadin errotuta dauden GKE-ek Hegoaldeko talde eta erakundeekin aliantza solidoak sortu beharrezkin, eta luze dirauten krisialdian zenbait eragilek egiten duten lanarekin.

3. Lankidetza Deszentralizatua eta Jarduera Humanitarioa

Espainiako eta mundu-mailako lankidetzan eragile garrantzitsua dugu lankidetza deszentralizatua. Lankidetzaren alde emandako funtsengatik ez ezik, lankidetza deszentralizatua garrantzitsua da haren instituzionalizazio-prozesuagatik eta gizarte zibileko elkarte eta taldeenganako gertutasunagatik. Azken urteetan, lankidetza deszentralizatuak krisi larria bizi izan du; hondatu, kolapsatu eta erabat desagertu dela ere esan izan da (Gómez Gil, 2013). Dena dela, komeni da, lankidetza deszentralizatua hizpide dugularik, honako hau onartzea: i) alor horretan egindako ekarpen eta lan eskerga aintzat hartu beharra; ii) lankidetzaren mota hori hobetzeko zenbait bide proposatu beharra; eta iii) inolaz ere urratu ezin diren minimo eta maximoak ezarri beharra.

Autonomia erkidegoek (AAEE) eta lekuan lekuko erakundeek (LLE) nazioarteko lankidetzaren alde duela gutxira arte emandako diru-funtsen bolumena izugarri handia izan da estatuko lankidetza-sistemaren barruan; ELGaren Garapenerako Laguntza Batzordeko herrialde emaile txiki baten adinakoa ere bai (esate baterako, Irlandak eta Portugalek, hurrenez hurren, 676 eta 490 milioi euro eman zituzten 2010ean nazioarteko lankidetzaren alde). 2009. eta 2010. urteetan bertan, lankidetza deszentralizatuaren alde emandako zenbateko agregatua aipatutako herrialde horiek emandakoaren parekoa izan zen. 2010ean Espainiako lankidetza deszentralizatuak 510 milioi euro jaso zituen (Estatuko Administrazio Orokorrak, berriz, 3.970 milioi euro zituen eskura); hau da, Garapenerako Laguntza Ofizialaren %11,4. Zoritxarrez, krisiak harrapatu gaituenetik, joera horrek behera egin du nabarmen. Aurreko hiru urteak (2011, 2012, 2013) urteak izugarriak izan dira lankidetza deszentralizatuan gabiltzanontzat: lankidetza-sistema ataka larrian dago, eta lankidetzaren eta Jarduera Humanitarioaren alde lan egiteko eskura ditugun diru-funtsak, berriz, erro-errotik murriztu dira.

Azken bi hamarkadetako ibilbideari erreparatuz gero, erraz ohartuko gara zeinen nabarmena izan den lankidetzaren deszentralizatuaren eboluzioa; alderdi kuantitati-boari dagokionez, handia izan da haren bilakaera, baina beste alderdi batzuk ere indartu ditu, hala nola instituzionalizazioa. Autonomia erkidegoetako eta lekuan lekuko gobernu gehienek laguntza bideratzeko planifikazioak egin dituzte, eta zenbaitetan, egia da, emaitza eskasak lortu dituzten arren, garbi dago aurrera egin dela lankidetzaren kontzeptualizazio eta formalizazioan. Jarduera Humanitarioari dagokionez, alde handiak daude oraindik plan zuzendari edo estrategiko batzuetatik beste batzuetara. Gatazkei eta Jarduera Humanitarioari buruzko Ikerketarako Institutuak eta Intermon Oxfamek (2010) diotenaren arabera, azken urteetan bilakaera moduko bat izan da gurean, autonomia erkidegoek Jarduera Humanitarioa aintzat hartu baitute, eta haien iritziz, gainera, egindako bidea positiboa izan da; izan ere, “laguntza humanitario erreaktibo eta asistentziala alde batera utzi, eta askoz zabalagoa den beste bat lehenetsi da”. Sendotze instituzional horren guztiaren ispilu nabarmena da lankidetzaren erakundeetara eraman izana, eta zehatzago esateko, Jarduera Humanitarioekin lotutako hainbat ekintza abian jarri izana. Beraz, egia da autonomia erkidegoek bere egin dutela Jarduera Humanitarioa, eta haren aldeko diru-funtsak areagotu dituztela; dena dela, ez dute inolaz ere ahalegin bera egin ekimenak-eta martxan jartzeko beharrezkoak diren laguntzaile, gidari eta teknikariak lortzeari dagokionez.

Jarduera Humanitarioari dagokionez, autonomia-erkidegoetako eta lekuan lekuko gobernuak **hainbat erantzun-mota** eman diete krisi humanitarioei: erakunde aldeaniztunekin hitzarmenak eta proiektuak egin dituzte, eta babesak eman diete; batzordeak martxan jarri ditu; eta, neurri txikiagoan, han-hemenka hondamendi bat edo beste gertatu orduko, laguntza espezializatua bideratu dute. Aniztasun horren arrazoiak bi hauek izan dira nagusiki: batetik, Jarduera Humanitarioetarako funtsak emateko konpromiso esplizituak hartu dira, eta horretan, lekuan lekuko testuinguru eta eragileei buruzko informazioa oinarri hartuta, ildo estrategiko bati jarraitu zaio; eta bestetik, aparteko funtsak ere esleitu izan dira, dena delako hondamendia erabat baldintzatuta dagoelako, eta beraz, gure ekintzek zentzua galdu eta emandako dohaintza bereizi eta koordinaziorik gabea bilakatu izan da.

Jarduera Humanitario deszentralizaturako funtsen %60a larrialdi osteko egoeretan erabili izan da. Onartu beharra dago zenbait administrazioek bete-betean asmatu dutela, eta alde horretatik, oso egokia izan dela Jarduera Humanitarioak garapenaren aldeko beste ekimen batzuekin uztartzea; horixe da, hain zuzen,

lankidetzaren deszentralizatuaren elementu nagusietakoa. Laguntza, birgaitzea eta garapena, hiru horiek elkarrekin uztartzeari egoki iritzi diote zenbait autonomia-erkidegotan, eta gure ustez, bide horri eutsi behar zaio, bide horretan sakondu behar da. Dena dela, Jarduera Humanitario deszentralizatuaren ezaugarriek berak baldintzatzen dute gure egitekoa, dela kanpoko politikan eskumenik ez dugulako, dela, besterik gabe, baliabide ekonomiko eta teknikorik ez dugulako. Jarduera Humanitario deszentralizatuak eraginik izango badu eta non aplikatu jakingo badugu, beharrezkoa da onartzea (eta zenbait ekimen anekdotikoren eraginik ezak horren berri ematen du) oso konplexua dela larrialdietan azkar jokatzeko. Askoz ere garrantzitsuagoak dira larrialdi osteko egoerak, luze dirauten krisialdiak eta garapen-prozesuekin lotutako interbentzioak oinarri dituzten Jarduera Humanitarioak, estatu barruko administrazioen ekintza-eremu espezializatuak direnez gero.

Funts horien guztien %86a GKE-en bitartez bideratu dira. Horrenbestez, garapenerako lankidetzan bezala, esparru humanitario honetan ere GKE-ak dira Garapenerako Laguntza Ofiziala kudeatzen duten eragile nagusiak. Nolanahi ere, errealtateak berak garbi erakusten digu diru-funts horiek bideratzeko baliabideak ez daudela eginak krisi-egoeran dauden herrialdeei behar bezain azkar laguntzeko.

Beste alde batetik, egiaztatu ere egiaztatu dugu lankidetzaren deszentralizatuak beti eutsi diola **Iparraldeko herrialdeetako gizarte zibilarekin gertutasun-lokarriak** sortzeko beharrari. Nahiz eta aipatutako hori lankidetzaren deszentralizatuaren potentzial handietako bat den, ahuldade bat ere izan liteke, nabarmen; izan ere, krisi humanitarioen inguruan Iparraldeko biztanleei emandako azalpen-motek gutxi sakondu dute haien egiturezko kausetan, eta ez dute behar bezala eman mundu globalean krisi horiek izan ditzaketen erlazio ugarien berri. Lankidetzaren sistematik kanpo dauden eragileek (komunikabideek, esaterako) berebiziko garrantzia dute errealtate zabal horren berri emateko, baina, hala eta guztiz ere, batzuetan modu okerrean edo/eta errealtatea desitxuratuz aurkeztu izan dute herrialde horien egoera. Komunikabideek herrialde horien berri sakon eta zehatz eman dezaten, lankidetzaren sistemak eta hartan lanean diharduten eragileek gauza gutxi egin dezakete. Horretarako, abian jarritako ekimenez, GKE-enek batez ere, zailtasun handiak izaten dituzte beren kabuz krisialdi humanitarioei buruz mezu sakon eta eraginkorrak emateko, eta beraz, Garapenerako Hezkuntzarekin lotutako ekimentera ere gero eta leku txikiagoa izaten dute krisialdi humanitarioen kausa sakonenei buruzko azalpenek. Hala ere, gertatzen denaren berri emateko modu hori nabarmen ahula bada bere, egia da lankidetzaren deszentralizatuak izan badituela beste baliabide berri batzuk, eta haien bitartez krisialdien kausetan

askoz modu zorrotzagoan sakondu dezaketela, informaziorik ia batere izaten ez duten herritarrek berek ere parte hartzeko bidea izan dezaten. Bistan denez, informazioa behar-beharrezkoa da gizartearen arteko solidaritate-lokarriak sortzeko, eta horretaz jabeturik, estrategia horri tinko eutsi zaio Jarduera Humanitarioan gabiltzanon artean: bai lekuan lekuko gobernuetan, bai autonomia erkidegoetan, eta baita, jakina, GKE-etan ere.

Nabarmenezkoa da, azkenik, 2013. urtearen erdia joana den honetan, *Espainiako Jarduera Humanitario publikoa ataka larrian* dagoela⁶. Ibilbide luze honetan, horretan ibili direnek lan eskergea egin dute, eta gauza on asko ikasi dituzte, baina kostua ere handia izan da, eta eraginkortasunik batere ez du izan.

3.1. JARDUERA HUMANITARIOA ZENBAKITAN

Espainiako Jarduera Humanitarioa krisi larrian dago: Jarduera Humanitario deszentralizatua, zehatz esatera. Azken bi urteetan, Garapenerako Laguntza Ofizialerako eta, batez ere, Jarduera Humanitariorako diru-funtsak drastikoki murriztu dituzte.

Jarduera Humanitariorako funtsei zehatz begiratuko bagenie, erraz ohartuko ginateke azken urteetako funtsen esleipenak guztiz aldakorrak izan direla. Horiek horrela, Jarduera Humanitariorako funtsek 2009an izan zuten une gorena, Espainiako Garapenerako Laguntza Ofizial zentralizatu nahiz deszentralizatuaren %10 jaso baitzuen.

2007an, Espainian lankidetzan ari ziren eragile guztiak jasotako funtsetatik 231 milioi euro jaso zituen Jarduera Humanitarioak, eta funts horien %18,8 (43,4 milioi euro) autonomia erkidegoek (AAEE) eman zuten, eta %4 (8,4 milioi euro), berriaz, lekuan lekuko erakundeek (LLEE). Dena dela, gobernu zentralak eman zuen dirurik gehiena Jarduera Humanitariorako. 2008. eta 2009. urteak onak izan ziren, eta Jarduera Humanitariorako emandako funtsek gora egin zuten, nabarmen. Bi urte horietan, hala ere, Jarduera Humanitarioaren pisu erlatiboa jaitsi egin zen, gobernu zentralaren laguntzek gora egin zutelako. 2009an 444 milioi euro lortu ziren, eta estatuak oso nabarmen igo zituen lankidetzarako laguntzak: laguntzen %93 estatuak emanak izan ziren.

⁶ Rey, F. & Núñez, J.A. (2013). *La AH en 2011-2012: tocando fondo. Jarduera Humanitarioari buruzko Behatokiaren txostena*. Madril: IECAH. 5. or.

Funtsak hain modu nabarmenean murriztu izanak garbi erakusten du laguntza humanitarioa garapenaren aldekoa baino aldakorragoa dela; bat-bateko igoerak eta jaitsierak daudela, nazioarteko komunitateak krisialdi jakinei nola erantzuten dien. 2009an krisialdi gutxi egon ziren komunikabideetan azaltzeko modukoak, eta horrek azal dezake, agian, urte hartan zergatik jaitsi ziren Jarduera Humanitarioarako funtsak %37. 2010ean, espainiar Jarduera Humanitario deszentralizatuak gorakadatxo bat izan zuen, baina, hala ere, funtsak, oro har, jaitsi egin ziren, nahiz eta, urte hartan bertan Haitin izandako lurrikararen ostean, Espainiako gobernua eta espainiar gizarte osoak esplizituki agertu zuten haitiarrekiko konpromiso irmoa.

2011. urtean jaso zuen Jarduera Humanitarioak diru-funts gutxien. Nabarmentzekoa da, diru-funtsen jaitsierari dagokionez, lekuan lekuko eta autonomia-erkidegoetako lankidetzak behera egin duela. Gaur egun ere beherakadak bere horretan jarraitzen du, 2012 eta 2013ko behin betiko daturik ez badugu ere. 2013an, dena den, administrazio zentralak aurreikusitakoaren arabera, 20 milioi euro eskas jasoko ditugu; 2011. urtean baino %94 gutxiago, alegia⁷.


1. Taula. Jarduera Humanitarioarako emandako diru-laguntza, eragilez eragile

| | 2008 | | 2009 | | 2010 | | 2011 | |
|-----------------|--------------------|------------|--------------------|------------|--------------------|------------|--------------------|------------|
| | € | % | € | % | € | % | € | % |
| AAEE | 36.892.205 | 9 | 23.093.089 | 5 | 24.720.585 | 6,78 | 12.333.451 | 4,02 |
| LLEE | 8.568.724 | 2 | 5.569.930 | 1 | 7.542.020 | 2,07 | 4.646.390 | 1,51 |
| Unibertsitateak | 70.660 | 0 | 72.738 | 0 | 191.231 | 0,05 | 50.431 | 0,02 |
| Guztira | 404.261.916 | 100 | 473.372.168 | 100 | 364.432.201 | 100 | 307.108.895 | 100 |

Iturria: ALBOAN. Geuk egina, azkeneko lau urteetako Nazioarteko Lankidetzari buruzko Urteroko Planeko datuak oinarri hartuta (2008, 2009, 2010 eta 2011).

⁷ Askoren Artean.(2013). *La realidad de la ayuda 2012: Una evaluación independiente de la ayuda y las políticas de desarrollo en tiempos de crisis*. Madrid: Intermon Oxfam.

1. Grafikoa. Garapenerako Laguntza Ofizialak Jarduera Humanitariorako emandakoa, eragilez eragile (2008-2011)



Iturria: ALBOAN. Geuk egina, azkeneko lau urteetako Nazioarteko Lankidetzari buruzko Urteroko Planeko datuak oinarri hartuta (2008, 2009, 2010 eta 2011).

Autonomia erkidegoek Jarduera Humanitariorako emandako Garapenerako Laguntza Ofizialari (GLO) zehatz-mehatz begiratu gero, hortxe dugu datua: azken urteetan nabarmen jaitsi dira laguntzak. 2007an, autonomia erkidegoetako gobernuak emandako Garapenerako Laguntza Ofizialeko funtsen %11 joan zen Jarduera Humanitarioetara (JH). 2008. urtetik aurrera, ordea, laguntzek behera egin dute, eta 2009an, %5 baino ez da izan Jarduera Humanitarioan gailtzanok jasotakoa.

Argi dago autonomia-erkidego askok ez dutela Jarduera Humanitaria lehenesten, eta horregatik, hain zuzen, oraindik asko falta da erkidegoetako aurrekontuetatik behar adina diru jasotzeko. Andaluzia, Gaztela-Mantxa, Katalunia eta Euskadi, horiek dira Jarduera Humanitariorako diru gehien ematen duten erkidegoak.

Ehunekoiei dagokionez, jakin badakigu larrialdi-egoeretan dauden herrialdeen behar eta premien arabera izaten dela Jarduera Humanitaria doazen funtsak. Dena dela, harrigarria ere bada zenbait autonomia-erkidegok, beren aurrekontuetan ematen duten diruaren kopuruari dagokionez, urteroko kopuruei eusten dietela. Horrek garbi adierazten du autonomia erkidegoek hautu argia egin dutela luze dirauten krisialdiei edo krisialdi kronikoei laguntzeko, eta ez hainbeste unean uneko larrialdiei. Zenbait kasutan, ehunekoak erabat aldatzen dira urte batetik bestera: badira zenbait autonomia erkidego urte bakarrean diru-funtsen %24 ematen dutenak, eta badira ere %2 ematen dutenak.


2. Taula. Autonomia-erkidegoek JHrako emandako GLOaren bilakaera (2008-2011)

| | 2008 | | | 2009 | | | 2010 | | | 2011 | | |
|-------------------|--------------------|-------------------|----------|--------------------|-------------------|----------|--------------------|-------------------|----------|-------------------|-------------------|----------|
| | GLO | JH | % | GLO | JH | % | GLO | JH | % | GLO | JH | % |
| Andaluzia | 96.775.351 | 11.802.806 | 12 | 99.333.442 | 3.610.025 | 4 | 80.656.809 | 11.615.810 | 14 | 14.588.908 | 0 | 0 |
| Aragoi | 9.610.565 | 1.037.648 | 11 | 10.603.015 | 923.873 | 9 | 11.260.180 | 903.217 | 8 | 6.902.553 | 557.000 | 8 |
| Asturias | 11.776.201 | 1.319.000 | 11 | 11.325.801 | 623.584 | 6 | 12.149.189 | 1.102.180 | 9 | 11.374.076 | 1.973.522 | 17 |
| Balear Uharteak | 15.594.107 | 903.481 | 6 | 14.924.160 | 476.200 | 3 | 9.867.813 | 187.324 | 2 | 1.659.926 | 0 | 0 |
| Kanariar Uharteak | 18.746.030 | 91.042 | 0 | 16.225.134 | 48.137 | 0 | 12.050.300 | 129.721 | 1 | 2.403.002 | 50.000 | 2 |
| Kantabria | 5.116.708 | 148.601 | 3 | 5.850.388 | 115.000 | 2 | 2.039.289 | 83.000 | 4 | 3.933.283 | 15.000 | 0 |
| Gaztela-Mantxa | 40.341.400 | 4.498.558 | 11 | 46.390.370 | 7.143.670 | 15 | 38.125.839 | 2.816.046 | 7 | 356.043 | 0 | 0 |
| Gaztela eta Leon | 10.333.747 | 1.046.988 | 10 | 11.886.118 | 233.685 | 2 | 10.514.280 | 159.811 | 2 | 9.154.381 | 275.000 | 3 |
| Katalunia | 62.827.889 | 4.959.701 | 8 | 57.301.759 | 3.997.000 | 7 | 56.734.335 | 2.403.535 | 4 | 33.005.358 | 1.366.000 | 4 |
| Extremadura | 9.087.860 | 257.042 | 3 | 13.774.550 | 425.449 | 3 | 14.396.489 | 686.466 | 5 | 9.166.574 | 362.094 | 4 |
| Galizia | 12.781.162 | 1.075.000 | 8 | 12.289.957 | 720.000 | 6 | 10.748.153 | 0 | 0 | 7.000.733 | 72.183 | 1 |
| Errioxa | 4.078.224 | 40.000 | 1 | 3.866.889 | 18.000 | 0 | 4.224.228 | 242.685 | 6 | 3.180.134 | 0 | 0 |
| Madrid | 38.979.100 | 1.449.143 | 4 | 38.078.638 | 658.353 | 2 | 35.856.242 | 855.505 | 2 | 10.650.489 | 886.766 | 8 |
| Murtzia | 5.130.756 | 151.581 | 3 | 4.744.959 | 0 | 0 | 2.188.329 | 93.000 | 4 | 246.305 | 0 | 0 |
| Nafarroa | 20.699.796 | 831.653 | 4 | 20.649.818 | 122.952 | 1 | 20.508.760 | 107.081 | 1 | 18.263.294 | 561.256 | 3 |
| Euskadi | 40.837.201 | 1.954.394 | 5 | 39.649.544 | 2.696.177 | 7 | 44.352.387 | 2.563.056 | 6 | 44.916.683 | 5.222.469 | 12 |
| Valentzia | 64.815.651 | 5.245.568 | 8 | 39.143.379 | 1.280.984 | 3 | 23.241.013 | 642.149 | 3 | 15.048.562 | 992.160 | 7 |
| Melilla | 84.800 | 80.000 | 94 | 0 | 0 | 0 | 130.000 | 130.000 | 100 | 0 | 0 | 0 |
| Guztira | 467.616.548 | 31.566.638 | 7 | 446.037.922 | 21.812.105 | 5 | 389.023.635 | 23.948.437 | 6 | 49.850.304 | 12.333.450 | 6 |

Iturria: ALBOAN. Geuk egina, azkeneko lau urteetako Nazioarteko Lankidetzari buruzko Urteroko Planeko datuak oinarri hartuta (2008, 2009, 2010 eta 2011).


Gatazkei eta Jarduera Humanitarioari buruzko Ikerketetarako Institutuaren arabera, autonomia-erkidegoen lankidetzak nazioarteko joerei jarraitu beharko liekete; horien arabera, beharrezkoa da Jarduera Humanitariorako gutxieneko diru-kopuru bat ematea: Garapenerako Laguntza Ofizialaren %7 eta %10 artean, hain zuzen. Gutxieneko ehuneko horiek ezartzeak badu, noski, arrazoi bat, garbi askoa: esleipen-mekanismo egokiak ezartzeaz batera, ezinbestekoa da, orobat, laguntzak zenbatekoak izango diren aurreikusteko moduak bermatzea, larrialdi-egoeretan ez ezik, luze dirauten krisialdi-egoeretan ere beharrezkoa baita zer edo zer egitea.

Aipatutako hori dugu gakoetako bat, autonomia-erkidegoen eta lekuan lekuko erakundeen lankidetzak lortuko badugu. Aipatu bezala, larrialdietan ezinbestekoa den erantzuteko gaitasunak eta eraginkortasunak talka egiten dute gobernu askok eta askok dirua emateko dituzten baliabideekin, eta horrek, jakina, GKE-ei eragiten die nagusiki. Horregatik, hain zuzen, beharrezkoa da diru-esleipenak egiteko moduak ondo aztertzea, edo esleipenak egiteko baliabideak bermatzea, eta beharrezkoa da, halaber, Jarduera Humanitaria behar bezala bideratzea, luze dirauten krisialdiei nahiz krisialdi kronikoei txukun erantzuteko eta horretan dabiltzanen eragileen egoera bera egokia izateko.



Iturria: ALBOAN. Geuk egina, azkeneko lau urteetako Nazioarteko Lankidetzari buruzko Urteroko Planeko datuak oinarri hartuta (2008, 2009, 2010 eta 2011).

3. Grafikoa. Autonomia-erkidegoen JH, guztira



Iturria: ALBOAN. Geuk egina, azkeneko lau urteetako Nazioarteko Lankidetzari buruzko Urteroko Planeko datuak oinarri hartuta (2008, 2009, 2010 eta 2011).

2009. eta 2010. urteak oso txarrak izan ziren: Haitiko lurrikara gorabehera, autonomia erkidegoek Jarduera Humanitariorako emandako funtsek behera egin zuten drastikoki. 2011. urtea izan zen, lankidetzaren autonomikoaren historian, Jarduera Humanitariorako diru gutxien eman zen urtea: 12 milioi euro eskas eman zituzten, eta horrek garbi adierazten du autonomia-erkidegoen konpromiso ahula.

Beste alde batetik, lekuan lekuko erakundeek Jarduera Humanitariorako emandako diru-kopuruak ere oso adierazgarriak dira. Zaila da udal eta aldundi bakoitzak zenbat diru ematen duen zehatz-mehatz jakitea, ez baitugu eskura datu zehatzik. Dena dela, esku artean dugun informazioa oinarri hartuta, egoeraren argazki orokor bat lor dezakegu. Hirugarren taulan ikus daitekeenez, Garapenerako Laguntza Ofizialeko funtsek behera egin dute: %17,5, 2009 eta 2010 artean. Funtsen jaitziera nabarmen horri dagokionez, 2009koa izan zen urterik txarrena: diru-funts guztien %4 baino ez zen eman Jarduera Humanitariorako. 2010. urtean jasotako diru-kopurua ere ez zen oso handia izan, Haitiko hondamendia gorabehera: guztira eman ziren 121 milioi eurotatik %6 baino ez zen joan Jarduera Humanitariora (2007an emandako kopurutik ez oso urruti).

3. Taula. Lekuan lekuko erakundeek JHrako emandako GLOaren bilakaera (2008-2011)

| | GLO | JH | % |
|------|-------------|-----------|----------|
| 2008 | 148.775.501 | 8.568.724 | 6 |
| 2009 | 147.182.837 | 5.569.930 | 4 |
| 2010 | 121.391.523 | 7.542.020 | 6 |
| 2011 | 95.291.534 | 4.646.390 | 5 |

Iturria: ALBOAN. Geuk egina, azkeneko lau urteetako Nazioarteko Lankidetzari buruzko Urteroko Planeko datuak oinarri hartuta (2008, 2009, 2010 eta 2011).

4. Jarduera Humanitarioa Euskadin

Euskal lankidetzak ezaugarri nagusi hau izan du beti: bere burua etengabe berritzea eta lankidetzaren sistema hobetzea. Jarduera Humanitarioari dagokionez, euskal lankidetzaren publikoak (gobernu-maila guztiak barne hartuta) oso kontuan hartu ditu bai larrialdi-egoeretako premiak bai luze dirauten krisialdiak. Alde horretatik, lankidetzaren esparru mota hori bermatuz joan da, eta argi ikusten da esparru hori lehenesten dutela bai gura erkidegoko gobernuak bai lekuan lekuko erakundeek. 2003. urteaz geroztik, Jarduera Humanitarioaren aldeko deialdi espezifikokoak egiten ditu Eusko Jaurlaritzak, eta zenbait udal, hala nola Gasteizkoa, aitzindariak izan dira horretan.

4.1. EUSKO JAURLARITZAREN JARDUERA HUMANITARIOA

Eusko Jaurlaritzaren 2008-2011 Plan Zuzendariak espresuki aipatzen du Jarduera Humanitarioa V. Jarraibidean, eta helburu hau proposatzen du: *“Jarduera Humanitarioaren aldeko politika koherentea finkatzea, epe luzearako garapena ahalbidetzeko”*. Jarraibide horrek hiru ildo nagusi hauek garatzea du helburu: (i) erreferentziarako marko teoriko bat definitzea; (ii) baliabide-marko koherente bat finkatzea; eta (iii) egin beharrekoa aurrekontuetan finkatzea.

2011. urtean, Eusko Jaurlaritzak Plan Zuzendariaren ebaluazio bat egin zuen, bai eta plan berriaren zirriborroa ere (2012-2017 urteetarako, hain zuzen), oraindik onartu ez den arren. Jarduera Humanitarioa lantzeko Euskal Estrategia bat diseinatzeari ere ekin zioten; hasieran, egoeraren diagnostiko bat egin zuten, eta zirriborro bat ere aurkeztu zen, ildo nagusien berri eman eta ekintza-marko bat proposatzeko. Hauxe da Estrategia horren xedea: *“Garapen Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu berriak abian jarritako zerbitzuei zenbait irizpide operatibo ematea”*.

Dena dela, gaur egun, oraindik lanean jarraitzen dute. Gure iritziz, zirriborro hura sekulako aurrerakada izan zen, diagnostikoa eta garrantzitsutzat jotzen diren ekinbide-ildoak denon artean erabaki baikenituen.

2008-2011 Planak printzipio nagusien adierazpen bat hartzen zuen oinarri, eta jarduerak bideratzeko ezinbestekoak ziren sektoreak ere definitzen zituen. Hau xe zuen helburu orokorra: *“Bizitzak salbatzea, sufrimendua arintzea, giza duintasuna babestea, eta hondamendien eraginpeko pertsonen eskubideak babestea, etorkizuneko garapenerako oinarriak ezarriz, giza eskubideak sustatuz, eta bakearen eraikuntza sustatuz, kalteberatasuna murriztuta eta biztanleriaren gaitasunak handituz”*. Definizio horrez gain, zeharkako beste zenbait ildo ere aintzat hartu ziren, bai eta erabat lehenetsi beharreko sektoreak ere, eta horretan, ikuspegia zabalegia izan arren, Jarduera Humanitarioan gabiltzanona lana orientatzea lortu zen; hona hemen ildo nagusiak: (i) larrialdi-egoeretarako laguntza; (ii) luzaroko laguntzak iheslari eta lekualdatuentzat; (iii) hondamendiak pairatu dituztenen egoera arintzea; (iv) larrialdi osteko egoeran daudenen birgaitzea; eta (v) hondamendi eta gatazka armatuen aurkako prebentzioa.

Horretarako, aipatutako Planak bi baliabide ezarri beharra aipatzen du: alde batetik, etengabeko finantzazioa, eta bestetik, Jarduera Humanitarioaren aldeko Estrategia Markoan txertatutako finantzazio-ildo bat. Lankidetzaren Euskal Agentziak 2011. urtean aurkeztutako txosten estatistikoaren arabera, 2008tik 2010era bitartean Jarduera Humanitarioan etengabeko lanari ekiteko 50 proiektu eta Jarduera Humanitarioaren aldeko 7 Estrategia Marko aurkeztu ziren (den-denek zuten xedetzat Afrikako herrialderen bat). Laugarren taulan garbi ikus daiteke zenbat ekimen finantzatu ziren Jarduera Humanitarioaren aldeko bi baliabide horien bitartez.

| 4. taula: JHren alde onartutako ekimenak eta emandako zenbatekoak (2008-2011) | | | | | |
|---|---|------------|-------|-------------------------|-----------|
| Urtea | Larrialdi-egoeretarako proiektu-kopurua | GLO | Urtea | JHko estrategia-markoak | GLO |
| 2008 | 14 | 10.350.559 | 2008 | 2 | 6.934.807 |
| 2009 | 15 | | 2009 | 2 | |
| 2010 | 21 | | 2010 | 3 | |
| 2011 | 21 | | 2011 | 3 | |


Iturria: ALBOAN. Geuk egina, Garapen Lankidetzarako Euskal Agentziaren datuak oinarri hartuta. 2008-2010 eta 2011 epealdietako Estatistika Txostena.

2008-2011 Plan Zuzendaria nola ezarri den aintzat hartuta, erraz ohartuko gara zer bilakaera izan duen gurean Jarduera Humanitarioak. Alde batetik, onartutako ekimen-motez jabetuko gara, eta beste alde batetik, berriz, ekimen horien banaketa geografikoaz. Urte hauetan guztietan Jarduera Humanitariorako emandako zenbatekoa 17.285.359 eurokoa izan da; larrialdi-egoeretan dauden herrialdeei laguntzeko proiektuek jaso dute diru gehien.

Lankidetzarako Euskal Agentziak berak emandako informazioaren arabera (2008-2011), Jarduera Humanitarioaren aldeko proiektu gehienak errefuxiatu eta lekualdatuei laguntzarekin lotuta egon dira, eta horretarako eman da, hain zuzen, diru gehien. 2008. eta 2009. urteetan, laguntzak %40koak izan ziren; 2011. urtean, berriz, laguntzek gora egin zuten, eta diru-funtsen %46 eman zen horretarako. Larrialdi osteko egoeran daudenak birgaitzen lan egiten duten eragileena, horixe izan zen laguntza gehien jaso zituen bigarren azpisektorea: Jarduera Humanitariorako funtsen %30, azken urteetan. 2011. urtean, larrialdi-egoerentarako laguntza (halaxe sailkatzen du Nazioarteko Lankidetzari buruzko Urteroko Planak) %12ra ere ez da iritsi. Koaderno honetan aipatzen diren datuek ere (Eusko Jaurlaritzaren 2008-2011 Plan Zuzendaria abian jarri dela kontuan badugu ere) aldaketa handiak izango dituzte 2013tik aurrera, **murrizketak direla tarteko.**

Banaketa geografikoari dagokionez, denbora-tarte honetan guztian, herrialde askok (23k, zehatz esatera) jaso zuten Jarduera Humanitariorako emandako diru-funtsa. Ezinbestez aipatzeko modukoak hauek dira: Haiti, 2010ean bizi izan zuen larrialdi-egoeratik; Palestina eta Saharar Errepublikak (aspaldikoa dira Euskadik bi herrialde horiekin dituen lankidetzaren harremanak); eta Kuba eta Kongoko Errepublika Demokratikoa.

4. Grafikoa: Eusko Jaurlaritzaren JHren banaketa geografikoa (2008-2011)



Iturria: Geuk egina, ALBOANek sortutako datu-basea oinarri hartuta. Datu-base hori egiteko, Udalek, Foru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak nazioarteko lankidetzaz helburu hartuta egindako ebazpenei buruz zenbait txosten eta Aldizkari Ofizialek diotena erabili da.

Banaketa geografiko horrek argi erakusten du zein den lankidetzaz autonomikoaren joera nagusia: luze dirauten krisialdi-egoerak eta krisialdi kronikoak pairatzen dituztenei laguntzea, alegia. Gorago esan dugunez, joera horren arrazoiak ulertzeko, gutxienez bi gako nagusi daude: batetik, kudeaketarekin eta planifikazioarekin lotutako markoa; eta bestetik, lan horietan parte hartzen duten eragileak.

- Kudeaketarekin lotutako markoari dagokionez, dagoeneko deskribatu ditugu Jarduera Humanitaria dela-eta Plan Zuzendariak lantzen dituen elementuak; beharbada, ezer gehitzekotan, garbi esan beharko genuke oraindik bide luzea dagoela egiteko eta asko falta dela xede guztiak betetzeko. Aurrekontu-konsolidazioari dagokionez, Planak berak ezarri zituen ko-

puruak: banatu beharreko funtsen %6tik %8ra bitartean, gutxi-gorabehera. Egia da kopuruak ez direla oso altuak, baina gorago aipatutako bi finantzazio-ildoak garatzeko adinakoak, behintzat, bai, azken urteetan egonkortasunik batere lortu ez den arren. Bigarren taulan ikus daitekeenez, Jarduera Humanitariorako funtsak gorabeheratsuak izan dira, oso: 2008an, %5 jaso zen; 2011n, berriz, %12.

Kudeaketa-marko horretan, zenbait baliabide eskuratzeko ematen diren diru-kopuruez gain, behar-beharrezkoa da, kopuru horiek behar bezala kudeatzeko, zenbait eskakizun eta prozedura betetzea; horrek, jakina, prozesua izugarri mantsotzen du, eta beraz, hondamendi edo larrialdi humanitarioen bat gertatzen denean, gure erantzuna ez da nahi bezain azkarra izaten. Hilabete edo hilabete eta erdi ere joaten da egoera horiei aurre egiten hasten garenerako. Bistan denez, larrialdi- eta hondamendi-egoerek askoz erantzun azkarragoa behar izaten dute: 48-72 ordu inguru, larrialdi-egoera hasten denetik⁸.

- Bada kontuan hartu beharreko beste elementu bat ere: Jarduera Humanitarioko funtsak exekutatzeko parte hartzen duten eragileen mapa, alegia. Lankidetzaren deszentralizatuak (Euskadikoak, bereziki) ezaugarri nabarmen-nabarmen bat du: funtsen kudeatzaile nagusiak GKE-ak izatea, hain zuzen.

Horixe izan da euskal lankidetzaren sistemaren ezaugarri garrantzitsuetako bat. Hori azaltzeko hainbat gako aipa daitezke; gako nagusia, agian, lankidetzari buruzko legea bera dugu; izan ere, haren arabera, funtsen %90 GKE-en bitartez bideratu behar da. Dena dela, begi-bistakoa denez, aipatutako hori ez da gure sistemaren konfigurazioa den bezalakoa izatearen arrazoi bakarra. Duela gutxira arte, administrazioak ia ez zuen modurik beste mota batzuetako prozesuei ekiteko (azken urteetan, baina, egoera errotik aldatu da, eta alde horretatik, Lankidetzaren Euskal Agentziak lan-talde kualifikatua du). Bestalde, borondate politiko handiegirik ere ez da egon beste lankidetzaren mota batzuetan sakontzeko; adibidez, lankidetzarako funtsak emateaz gain, gobernuak berak ere parte har lezake Euskadiko eragile eta baliabideen arteko

⁸ Hori dela eta, hara zer dioen Gurutze Gorriak: “Nazioarteko agentziek eta GKE espezializatuek beharrezkotzat jotzen dute sistema eraginkor eta autonomoak sortzea, denen arteko koordinazioaren bitartez hondamendiren batek eragindako larrialdi humanitarioei modu eraginkor eta proportzionatua erantzuteko. Horretan, ezinbestekoa da gure erantzuna 72 orduko gorakoa ez izatea. Erantzunak eraginkorra izan behar du, eta beraz, gure lan egiteko moduak ere bai. Horretarako, hain zuzen, ezinbestekoa da gure langileak espezializatuak izatea, eta larrialdi-egoerei modu egokian erantzuteko moduko punta-puntako teknologia eskura izatea”. Jo webgune honetara: <http://www.cruzroja.es/pls/portal30/docs/PAGE/CANAL FORMACION/ERU/eru/erua.htm>

koordinazio-lanak egiten, denen artean larrialdi humanitarioei nahiz luze dirauten krisialdiei aurre egiteko.

Horiek horrela, GKE-ak izan dira nagusi diru-funtsak exekutatzeko (tartean, baita Jarduera Humanitarioaren alde emandakoak), eta ulertzeko modukoa da, gainera. Euskal lankidetzaren ikuspegi horretan, badira GKE gutxi batzuk larrialdi-egoeretan nahiz krisialdi kronikoa nagusi duten testuinguruetan lan egiteko ahalmen handia dutenak; baina, edonola ere, horiek ere ezinbesteko dute beren espezializazio-mailan aurrera egin eta Jarduera Humanitarioan diharduten nazioarteko eragileekin lan-sare moduko batzuk jostea. Hori dela eta, Euskadin gutxi dira Jarduera Humanitarioan espezializatuta dauden taldeak, eta edozein moduz, gehiago dira larrialdi osteko egoeretan lan egiten dutenak, berehalako laguntza ematen dutenak baino.

Beste elementu garrantzitsu bati ere heldu behar zaio, ezinbestez. Bai Eusko Jaur-laritzak, bai tartean diren eragile nagusiek, den-denentzat izan da beren ahalmen eta espezializazio-esparruak kontuan hartuta laguntza-birgaitzea-garapena hirukotearekin lotutako estrategiak sustatzea. Bide horretatik jo dute, hain zuzen, onartutako proiektu guztiek.


Beste alde batetik, euskal lankidetzan lanean diharduten eragile guztien iritziz, Jarduera Humanitarioaren gaineko politika erdibidean gelditu da eta ez da inondik ere sendotu. Horretan guztian lan handia eginda, egia da. Baina, hala eta guztiz ere, Jarduera Humanitarioari buruzko Euskal Estrategia lausoegia da, zehaztea falta zaio, eta horrez gain, aurrekontu-dotaziorik ere ez du jaso, eta beraz, ahalegin handiagoa behar da politika-ildo hori sendotu eta, batez ere, lehentasunak definitzeaz batera, ekinbideak orientatzearekin eta gure lanaren eragina areagotzearekin lotutako erabakiak hartzeko.

2013. urtean lankidetzarako diru-funtsak nabarmen murrizteak sekulako eragina izango du Jarduera Humanitarioaren gainean abiarazitako ildoetan. Eusko Jaur-laritzak eskura dituen bi baliabideetako bakar baten deialdirik egin ez izanak izango du, zalantzarik gabe, ondoren, aurtengo esleipenetan ez ezik, baita datozen urteetakoetan ere. Esan beharrekoa iruditzen zaigu gure sektore honetan urratutako bideak eta Jarduera Humanitarioan egindako urratsek ezin dutela ezerezean gelditu. Uste osoa dugu gauzek hobera egingo dutela: atzera ere diru-laguntzak abian jarriko direla, lanerako baliabideak berreskuratuko ditugula eta Jarduera Humanitarioaren aldeko babes eta konpromisoari berrekingo zaiola. Izan ere, horiek guztiak beharrezkoak dira laguntza humanitaria sendotuko badugu eta orain arte egindakoak ezertan geldituko ez badira.

4.2. LEKUAN LEKUKO ERAKUNDEEN JARDUERA HUMANITARIOA


Euskadiko Udal nagusiek eta Foru Aldundiek tinkotasunez babestu dituzte larrialdi-egoeretan dauden herrialdeei laguntzeko Jarduera Humanitarioak. Horregatik, hain zuzen, Jarduera Humanitarioarekin lotutako deialdiak egin ohi dituzten euskal hiriburu-udalek eta Foru Aldundiek 2008tik 2011ra bitartean bultzatutako Jarduera Humanitaria hartuko dugu hizpide. Hauek dira hona ekarriko ditugun udal eta foru aldundiak: batetik, Bilbo eta Gasteiz; eta bestetik, Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundiak. Emaille horiek Jarduera Humanitarioarekin lotutako 80 proiektu babestu dituzte emaille horiek, eta 4 milioi euro eman dituzte guztira.

5. Grafikoa: Lekuan lekuko erakunde nagusiek JHrako emandako GLO-kopurua (2008-2011)



Iturria: Geuk egina, ALBOANek sortutako datu-basea oinarri hartuta. Datu-base hori egiteko, Udalek, Foru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak nazioarteko lankidetzara helburu hartuta egindako ebazpenei buruz zenbait txosten eta Aldizkari Ofizialek diotena erabili da.

Grafikoan argi ikus daitekeenez, diru-laguntza gehienak 2010ean eman ziren, Haitiko larrialdi-egoera dela tarteko. 2008-2011 epealdian diru-laguntza gehien eman dituen erakundea Arabako Foru Aldundia izan da, eta haren atzetik, berriz, Gasteizko Udala.




Iturria: Geuk egina, ALBOANek sortutako datu-basea oinarri hartuta.

Proiektu horien banaketa sektoriala oinarri hartuz gero, honexetaz ohar gintezke: sailkapenak egiten hasita⁹, proiektuen %83 Larrialdi eta Hondamendi Egoerarako Laguntzarekin lotutako ekimenak dira (Garapenerako Laguntza Batzordearen 720. Kodea); hor dira, tartean, edozein motatako larrialdi-egoeretan, hondamendi-egoeretan, krisi-egoeretan nahiz iheslariei lagundu beharreko egoeretan ematen diren babes- eta laguntza-kasuak. Gainerako ekimenak (hots, ekimen guztien %15) berreraikuntza-lanekin lotuta daude; Garapenerako Laguntza Batzordeak 730. kodelat hartzen dituen lanekin, alegia.

⁹ Garapenerako Laguntza Batzordeak proposatutako kodeen arabera egin ditu sailkapenak ALBOANek, eta horretan, lekuan lekuko erakundeek onartu eta aldizkari ofizialetan nahiz urtekarietan argitaratutako proiektuei buruz han-hemenka eskuragarri dagoen informazioa hartu dugu oinarri. Gasteizko Udalak bere sailkapen propioa egiten du, eta hartaz baliatu da ALBOAN hemen aipatzen diren datuak biltzeko.

Lekuan lekuko erakundeek azken urteetan Jarduera Humanitarioaren esparruan urratutako bidean, 28 herrialdetan abiarazi dira ekimenak. Diru-funts horien zati-rik handiena Afrikako herrialdeentzat dira, 7. grafikoak erakusten duenez.



Iturria: Geuk egina, ALBOANek sortutako datu-basea oinarri hartuta.

Diru-laguntzak geografikoki nola banatu erabakitzeke, lekuan lekuko larrialdi-egoerak hartzen dira kontuan. Tokiko GKE-ek eskatzen dituzte, hain zuzen, diru-laguntza horiek. Tokiko GKE-en bitartez bideratzen dira diru-laguntzak, talde horiek tokiko beste erakunde batzuekin izan ohi dituzten harremanengatik. Zuzenean emandako laguntzak funtsen %10 ere ez dira izaten.

Ekinbide ezin hobea: Arabako Larrialdietarako Funtsa (ALF).

Ekimen hau eredugarritzat hartzen dugu; izan ere, ezin bikainagoa izan da eragileen arteko lana koordinatu eta Euskadiko lekuan lekuko erakundeek Jarduera Humanitarioaren inguruan abiarazitako ekimenak etengabe berritzeko. Arabako Larrialdietarako Funtsa 2005ean jarri zen abian, garapen bidean diren herrialdeetako larrialdi-egoerei eraginkortasunez aurre egiteko ahaleginak batzea eta horretarako diru-laguntzak lortzea helburu hartuta. Hiru erakundek parte hartzen dute (bi publikoak dira, eta bat, pribatua): Gipuzkoak Foru Aldundiak, Gasteizko Udalak eta Vital Kutxa Fundazioak (gaur egun Kutxabanken dago). Erakunde publiko nahiz pribatuen arteko aliantza horrek garbi erakusten du guztiz posible dela lankidetzaren bide berriak urratzea, laguntza humanitarioan eraginkortasunez jarduteko.

2010ean, Funtsek 1.415.701 milioi euro jaso zituen, eta diru horri guztiari esker, 26 proiektu abiarazi dira 17 herrialdetan. Diru-laguntzak Araban diharduten GKE-en bitartez ematen dira.

Sistemaren baldintzapenengatik (dela eragileen ahalmenengatik, dela orain arte egindako hautuengatik) argi utzi dute zer bideri ekin zaion orain arte: gure laguntza humanitaria krisialdi kronikoa bizi dutenengana edo luze dirauten krisialdi-egoera bizi dutenengana bideratu dugu. Bistan da esparru horretan espezializatu daitekeela lankidetzaren deszentralizatua, esparru horri hel diezaiokegula, gure ahalmenak, urratutako bidea eta gure eragileen mapa kontuan hartuta.

5. Euskadiko Jarduera Humanitarioa hobetzearen aldeko zenbait gomendio

Gaur egungo erronkei aurrez aurre begiratu diegu, euskal lankidetzak Jarduera Humanitarioaren esparruan egiten dituen lanen azterketa egin dugu, eta horrekin guztiarekin batera, gertu-gertutik erkatu ditugu, batetik, lekuan lekuko esperientziak (Hegoaldean), eta bestetik, Iparraldeko herrialdeek ematen dituzten dirulaguntzak. Hori guztia kontuan hartuta, zenbait iruzkin egin nahi ditugu, euskal lankidetzak-sistema, eta bereziki, Euskadiko Jarduera Humanitarioa indartzeko zer bide urratu beharko genituzkeen sakon aztertzeko.

Jarduera Humanitarioaren esparruan, **ALBOAN**ek mundu-mailako aliatu bat dauka: **Errefuxiatuen aldeko Jesuiten Zerbitzua**, hain zuzen. Aliantza hori oinarri hartuta, lekuan lekuko premiak aztertu ditugu, eta horretan, noski, Euskadiko Jarduera Humanitarioaren egoera hartu dugu aintzat, hobetu beharrekoak eta eraginkortasunaren alde egin beharrekoak aztertze aldera.

5.1. GOMENDIO OROKORRAK

Luzaroko krisialdiak eta behin eta berriz gertatzen diren krisi-egoerak lehenestea

- Kanpo-politikan eskumenik ez duenez, eta interes geopolitiko eta militarrek tartean diren herrialdeetan presiorik batere egin ez dezakeenez, lankidetzak deszentralizatuak lan ezin baliagarriagoa egin dezake esparru horretan. Horretarako, baina, beharrezkoa da finantzazio minimo bat bermatzea, **ahaztutako krisialdiei** aurre egiteko, batetik, eta hedabideetan sekula agertzen ez

diren luzaroko krisialdi-egoeretan esku hartzeko, bestetik. Apustu horrek berekin dakar, noski, finantzazioaz arduratzen den erakundeak hedabideetan ikusgaitasun handiagoa izatea. Eraginkortasunaren aldeko apustua da, finantzazio-, kudeaketa- eta erantzun-ahalmenarekin bat datorrena. Euskadiko lekuan lekuko GKE-ek beren lankidetzeta-bidearekin jarraitzeko aukera ematen du gure apustu honek, eragile horiek ibili izan direneko testuinguruetan lanean jarraitzekoa, beren eskarmentua eta ikasitako guztiak aprobetxatzekoa.

- Dena dela, komeni da testuinguru horiek **askotarikoak** direla aintzat hartzea, egoera posibleak ugariak baitira (iheslarientzako esparruak, herrialdean bertan lekualdatutako pertsonak, hirietan errefuxiatutakoak, babes-komunitateetan dauden pertsonak...). Gaur egungo egoera kontuan hartuta, argi dago zenbait arrazoi direla-eta egoera larrian dauden testuinguruetan (klimaldaketaren ondorioz larri dabilzanetan, batez ere) krisialdiek behin eta berri-jotzen dutela. Horren ondorioz, ezinbestekoa da gure ekinbide eta baliabideak malgutzera, lekuan lekuko premiei aurre egingo badiegu; izan ere, gaur egun, baliabide berberak erabiltzen ditugu, testuingurua zein den kontuan hartu gabe.
- Lankidetzeta deszentralizatuak asko du hobetzeko; Jarduera Humanitarioa garapenerako lankidetzarekin bateratzeko ahaleaginean, nagusiki. Bi agenda horiek elkarrekin lotzek nabarmen hobetu dezake eragilean, baliabidean eta jardueren arteko koordinazioa. Alde horretatik, beharrezkoa da **larrialdiegoerarako laguntza, birgaitzea eta garapena elkarrekin uztartzea**, lankidetzeta deszentralizatuan gabiltzanon lana hezurmamitzeko bide ezinbestekoa den aldetik. Estrategia horiei guztiei esker, epe luzeko errehabilitazioa eta garapena oinarri dituen laguntza humanitarioak aurrera egin beharko luke. Horretarako, ezinbestekoa da ahalegintxo bat egitea, ahal dela bizimodu iraunkor baten aldeko babesa eman eta laguntza humanitarioaren ordez errehabilitazio- eta garapen-jarduerak ardatz bihurtze aldera.

Euskal lankidetzaren alde onak sustatzea

Gizarte zibila ernamuina dela eta harekin zuzenean eta etengabe lan egin behar dela onartzea, horixe izan liteke euskal lankidetzaren ezaugarri garrantzitsuenetako bat. Gizarte zibila eragile ezin garrantzitsuagoa da. **Gertueneko gizarte zibila** (Euskadiko) lanean dihardugun lekuetakoekin **estu uztartzeko** gai izan beharko genuke. Prozesu horretan, ezinbestez jakin behar da gizartearekin bat egiten, edozein

testuinguru humanitariok berekin dakartzan sakoneko arazoez jabetu dadin, eta **horren berri emateko** eta eragile politikoengan **eragiteko mekanismoak bere gain** dituela ohart dadin; gero, jakina, eragile politikok hartu beharko dituzte krisialdi humanitarioekin lotutako egiturazko kausak zuzentzeko neurriak.

- Garapen bidean dauden herrialdeetako errealitate eta testuinguru humanitarioei dagokienez, herritarrei haien berri eman eta jendea sentsibilizatzeko estrategiak-eta garatzen euskal lankidetzak **eskarmentu ukaezina** du. Dena dela, eskarmentu horretan are gehiago sakondu daiteke, eta beraz, kome- ni da Jarduera Humanitarioarekin lotutako gaiei buruzko **sentsibilitate- eta intzidentzia-prozesuak** babestea. Horretarako, bistan denez, beharrezkoa da herritarrengandik gertu egon eta hezkuntza-, komunikazio- eta babes- jarduera espezifikoak abian jartzea, Jarduera Humanitarioarekin lotutako sare zabaleko parte diren gobernu eta gizarte-eragileek solidaritate-jardunbideak martxan jar ditzaten.
- **Txiki izatearen garrantzia azpimarratzea:** horrela, izan ere, gure ahaleginak herritar zaurgarrienei eskaini ahal izango dizkiegu. Testuinguru handienetan nagusi izaten diren baldintzapen eta arriskuei uko eginez gero, laguntza hu- manitarioak, txiki izatearen garrantziaz jabetuta, lekuan lekuko testuinguruak har ditzake ardatz, eta horrenbestez, testuinguru horien bazterketa-egoerak gaintitzen saia daiteke (laguntza-, zaintza- eta zerbitzu-mota ugarienetan berrikuntzak proposatuz, parte-hartze eta antolakuntza komunitarioak bul- tzatuz...). Urrats txiki baina etengabeko horiei guztiei esker, lekuan lekuko Jarduera Humanitaria aintzat hartzeaz batera, zenbait lekutan eragina izan duten esperientziak geure testuinguruan bertan aplikatu ahal izango ditugu.

Koordinazioaren erronka onartzea

- Euskal lankidetzeta-sistemako kide garen aldetik, beharrezkoa da gure jarduerak guk baino ahalmen et esperientzia zabalagoak dituzten eragileekin **koordinatzea**; **larrialdi humanitarioak** gertatzen direnerako, nagusiki. Larrialdi-egoeretan dauden herrialdeei laguntzeko, beharrezkoa da orain arte lankidetzeta deszentrali- zatuak garatu ez dituen zenbait baliabide (baliabide finantzario nahiz teknikoak, bai eta giza ahalmenak ere) lantzea eta sakontzea. Horregatik, hain juxtu, ezinbestekoa da **larrialdi-egoeretan daudenei nola lagundu erabakitze**ko iriz- pideak **definitzea**, horretarako aliatuak aukeratzea eta erantzun koordinatuak eraginkortasunez emateko mekanismoak ezartzea.

- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak bere gain har dezake lidergoa, eta beraz, erakunde aldeaniztunen nahiz estatu-erakundeen arteko lanak koordina ditzake. Euskadiko Autonomia Erkidegoan bertan, Arabako Larrialdietarako Funtzsaren moduko esperientziak babestu eta bultzatu beharko lirarteke, indarrak batu eta erantzunetan eraginkortasunez jokatzeko aldera.

Elkarrekin erlazionatzeko modu berriak sustatzea

Epe luzeko konpromisoa: elkarrenganako konfiantza eta aitortpena

- **Aliantzek** ezinbesteko dute elkarrenganako aitortpena. Gertutasuna ardatz hartuta, eskualdeetako nahiz lekuan lekuko administrazio publikoen eta gizarte zibileko taldeen arteko konfiantza indartu behar da. Gogoan hartuta, gainera, Jarduera Humanitarioan dabilzan eragileak gutxi direla, elkarren arteko lankidetzak eta elkarrizketak errazago da gure artean. Gure kasuan, gainera, koordinazioaren premia oso nabarmena da, sektorearen berezitasuna eta gero eta premia larriagoan dauden testuinguruak eraginkortasunez aurre egiteko beharra kontuan hartuta.
- **Aliantzen ikuspegia** lantzeak haxe esan nahi du: zenbait lurralde, kolektibo eta gizarterekin epe luzeko harremanak eta lokarriak jostea. Horretarako, jakina, beharrezkoa da elkarren aliatu diren eragileen ibilbide, baliabide eta ekarpenak aintzat hartzea. Ezinbestekoa da, beraz, orain arte garatu gabeko baliabideak lantzea, eta horretan, eragileen arteko konfiantza oinarri hartzea: gaur egun laguntza humanitarioan dabilzanen kudeaketa- eta administrazio-eragozpen guztiak alde batera utzi eta akreditazio-mekanismoak nahiz deialdietan-eta parte hartzeko aukera bermatzea, Jarduera Humanitaria errazteko, eraginkorragoa izateko eta behin eta berriz krisi-egoeretan egoten diren herrialdeei batera etenik gabe laguntzeko.
- Gaur egungo egoerak Jarduera Humanitarioan sakontzeko Euskal Estrategia bat diseinatzeko aukera ematen digu, etorkizunean ere aukera egokiak egiten, bidea urratzen eta baliabide eraginkorrak sendotzen jarrai dezagun. Gure ustez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak idatzitako dokumentu-zirriborroa oso positiboa izan da, ildo estrategiko guztiz egokiak ematen dituen gero. Nolanahi ere, ideia horiek praktikan jartzea, horixe da gakoa, eta haietako batzuk lausoegiak dira oraindik, zehaztu gabe daude; beraz, oraindik ez dakigu lan horrek guztiak nora eramango gaituen. Baliabideak eta ekimenak zehazteko **prozesuan**, gure ustez, beharrezkoa da **denon parte-hartzea**,

eta beraz, tartean dauden eragile guztiek esku hartu behar dute horretan, hala nola GKE-ek eta gure erkidegoko administrazioek, Euskadiko estrategia bateratu eta koordinatu batean parte har dezaten. Horrenbestez, ezinbestekoa da ideietan bat etortzeaz gain baliabideei eta mekanismoei dagokienez ere ikuspegiz aldatzea, jauzi bat egin, aliantzen ikuspegi honetan sakondu eta gure lankidetzaren eraginkortasuna hobetzeko. Lekuan lekuko premien berri dugunez, beharrezko deritzogu denon parte-hartzeari eta ahaleginak estu josteari. Beharrezkoa da laguntza-kate hori horizontalago bihurtzea, zurruntasunik batere gabe lan egiteko. Gaur egungo egoera (krisia nagusi duena eta zenbait baliabideren egokitasuna kolokan jarri dituen) oso egokia iruditzen zaigu elkarrekin hizketan hasi eta denon artean gogoeta egiteko.

Denon arteko planifikazioa, ebaluazioa eta ikaskuntza

- Ahalegin berezia egin behar da orain arte egindakoa **sistematizatu eta ebaluatzeko**. Helburua, noski, ikasten jarraitzea da. Orain arte ebaluatutako proiektuak ere oso kontuan hartu behar dira, azken urteetan horiek eman baitigute ikasten jarraitzeko aukera. Ikasten jarraitzeko, ikasitakoaren berri gizarteari emateko eta Euskadin Jarduera Humanitario eraginkorragoa abiarazteko baliabide ugari daude.
- Jarduera Humanitarioarekin lotutako proiektuetan adituak diren **lekuan lekuko kanpo-ebaluatzaileak** erabili behar dira. Horrekin batera, gure ikuspegia zabal-tzen ere saiatu behar dugu, unean uneko jarduera ebaluatzeaz gain euskal lankidetzaren lanean aritu deneko testuinguru zabal hori guztia aintzat hartuz. Prozesu osoari erreparatzea garrantzi handikoa da, bai eta metaebaluazioak egitea ere. Ebaluazioa ez da kontrol-neurri bat, ikaskuntza-estrategia bat baizik: etengabe hobetzen aritzeko baliabidea, eragileoi garrantzi handiko ardura ematen diguna.

5.2. GOMENDIO ESPEZIFIKOAK

→ **Administrazio publikoentzat: gertueneko administrazio bideratzailea**

Dohaintza Humanitario Onaren printzipioak onartzea

- Jarduera humanitarioak garapenaren hainbat printzipio osagarri ditu ardatz: Dohaintza Humanitario Ona, esate baterako. Printzipio hori 2005ean sinatu zuen Espainiako gobernuak, autonomia-erkidegoetako eta lekuan lekuko gobernuen lan egokia koordinatze aldera, betiere kontuan hartuz zein den

erakunde horietako bakoitzaren garrantzia; izan ere, eragileen artean (estatuak, NBE) alde handiak daude. Eragile bakoitza, baina, guztiz gogoan hartu beharreko potentzialtasunak ditu.

Laguntzaren aurreikusgarritasuna: aurrekontuetan hartu beharreko konpromisoak, borondate politikoaren erakusgarri

- Autonomia-erkidegoetako eta lekuan lekuko erakundeetako aurrekontuetan idazpen eta funts espezifikoak egin behar dira, Jarduera Humanitarioan dabilzanean emateko.
- Baliabide espezifikoak lehenetsi behar dira krisialdi kronikoei nahiz behi eta berriz gertatzen diren krisialdiei aurre egiteko.
- Eskura dauden baliabideak berrikusi, malgutu eta egokitu behar dira.

Baliabide egokiak diseinatu behar dira, larrialdi-egoerei berehala aurre egiteko beharrezkoak diren estandar minimoekin bat etorritik; horretan, eragileen arteko koordinazioa hartu behar da oinarritzat, eta gobernu-maila guztiak behar bezala uztartu behar dira.

Errealitatea aintzat hartuz lehentasunak definitzea

- Laguntza humanitarioa, birgaitzea eta garapena, hiru horiek uztartzeko apustuari eutsi behar zaio, eta beraz, Jarduera Humanitarioarekin lotutako proiektuak errazteaz batera, beste garapen-proiektu batzuk bultzatu behar dira (baremazioaren bitartez). Era berean, esku-hartze prebentiboetan, laguntza-birgaitzea-garapena ikuspegia uztartu behar da.
- Instituzionalizazioa indartu behar da, lekuan lekuko ekimenak eraginkorrak izan daitezen.
- Partaidetzarako gune egokiak bultzatu behar dira, bai Euskadiko GKE-ek bai haien aliatuek haietan parte hartu eta beren baliabide nahiz estrategiak egokitu eta abian jar ditzaten.

Langile kualifikatuak

- Sektore honetarako erreferentziatzko langileak behar dira. Euskal Agentziak izan badu lan-talde espezializatu bat; beraz, beharrezkoa da oinarri solidoak eraikitzea, Eusko Jaurlaritzak Jarduera Humanitarioa bultzatzen dezan.

- Jarduera Humanitarioarekin lotutako prestakuntzan inbertitzea beharrezkoa da, administrazio-kontuetan eta GKE-ei buruzko auzietan espezializatutako langileak izan ditzagun.

Jarduera Humanitaria oinarri duen Garapenerako Hezkuntzaren aldeko apustua

- Funtsezkoa da, testuinguru humanitarioaren kausen eta konponbideen berri emateko, Garapenerako Hezkuntza prestakuntza-ardaztat hartzea. Alde horretatik, gure ikuspegia zabaldu eta Garapenerako Hezkuntza integral baten aldeko apustua egin behar dugu. Horrenbestez, ezinbestekoa da Hegoaldearen eta Iparraldearen arteko osina gainditzea (Hegoaldean, zenbait jarduera finantzatuz; Iparraldean, ekimenak proposatuz), krisi humanitario bete-betean dauden herrialdeetan Garapenerako Hezkuntza bultzatuz eta sentsibilizazio politiko eta sozialerako estrategiak diseinatuz; horretarako, jakina, egoera horietan nagusi izaten diren alderdi guztiak hartu behar dira gogoan: natura-baliabideez jabetzearekin lotutako gatazkak, ingurumenaren suntsipena, laguntzen mendekotasuna.

Partaidetza-, gogoeta- eta koordinazio-guneak sortzeko ahalegin proaktiboa

- Gaur egungo guneen funtzionamendua hobetu behar da; adibidez, Lankidetzaren Euskal Kontseiluarena. Batzorde horretan euskal lankidetzan diharduten hainbat eragilek egiten dute lan. Horien papera sendotu egin liteke, nabarmen, eta beraz, politika berriak definitzen eta, batez ere, egin beharrekoak koordinatzen aritu beharko lukete.

Bide horretan aurrera eginez gero, gure inguruko administrazio eta instanziek askoz parte-hartze handiagoa izango lukete, lankidetzaren aldeko eragile bihurtuko lirateke, eta Jarduera Humanitarioaren alde jarriko lituzkete eskura dituzten baliabide eta indarrak.

Beste alde batetik, beharrezkoa da administrazio publikoek gizarte zibila indartzea. Gizarte zibila indartuta, herritarrek Jarduera Humanitarioarekin lotutako politiketan eta ekintzetan parte hartu ahal izango lukete, eta horrela, parte-hartze horren zilegitasuna bermatuko litzateke. Partaidetza-bide errealak martxan jartzea beharrezkoa da Jarduera Humanitarioarekin lotutako baliabide eta politikak diseinatzeko. Horrek, gainera, gizarte zibila eta administrazioa, biak indartzen ditu, lankidetzeta-sistema hobea lortzeaz batera.

Kudeaketa arintzea eta egokitzea

- Prozedurak eta eskakizunak ahalik gehien sinplifikatu behar dira.
- Larrialdi-egoeran daudenei laguntzeko prozedurak eta baremazio-irizpideak malgutu behar dira (irizpide berberei jarraitzen zaie bai larrialdi-egoeretan bai Jarduera Humanitarioarekin lotutako egoeretan).
- Administrazio publikoetan (Euskadikoetan gutxienez) proposamenak eta txostenak aurkezteko prozedurak harmonizatu behar dira.
- Zenbait hizkuntzatan (gazteleraz, ingelesez eta frantsesez) lan egiteko aukera eman behar da. Proposamenak egiteko eta jarraipen-txostenak (txosten finantzario nahiz narratiiboak) aurkezteko prozedura egokiak eskuragarri izatea ingelesez eta frantsesez, eta txosten horiek itzulpenik gabe onartzea.
- Justifikazio-prozedura soilak erraztea. Txosten narratiboez gain, proiektuen auditorien nahiz urteroko auditorien bitartez kudeaketa egokia egin dela egiaztatzea.
- Txostenen kudeaketa digitala (artxibo digitala) bultzatzea, kontabilitate-kontuak errazteko eta arintzeko.

→ Euskadiko Gobernuz Kanpoko Erakundeentzat

- Sektore honetan, langile kualifikatuak izatea. Jarduera Humanitarioarekin lotutako kontuetan ari direnei prestakuntza ordaintzea, langile espezializatuak lortzeko.
- Ahaleginak egitea denek ahaztuak dituzten krisiei ere aurre egiteko.
- Erakunde aliatuekin aliantzen ikuspegia sendotzea. Garrantzi handikoa da epe luzeko harremanak izatea lekuan lekuko herritar, kolektibo eta komunitateekin, eta horretarako, beharrezkoa da haienganako gertutasun-, konfiantza- eta ezagutza-lokarriak jostea. Horrela, denen artean erabaki behar dira abian jarri beharreko estrategiak.
- Jarduera Humanitaria estu lotu behar da Birgaitzearekin eta Garapenarekin. Beraz, ondo diseinatu behar dira lanerako estrategiak, hango eta hemengo herrialdeetara joatean eta handik etxera itzultzean dena ondo lotuta egon dadin; era berean, lekuan lekuko taldeekin harremanak izatea ere beharrezkoa da, haiek izango baitute garapenerako lanekin jarraitzeko ardura, beren testuinguruko premiak eta gizarte zibila sendotzeko konpromisoa oinarri hartuta.

- Ahalegin berezia egin behar da orain arte egindakoa sistematizatu eta ebaluatzeko. Helburua, noski, ikasten jarraitzea da. Lekuan lekuko langileen parte-hartzea sustatu behar da, egindako lanak ebaluatzeko, eta horrez gain, kanpo-eragileak ere beharrezkoak dira, etorkizunean egin beharrekoak aberasteko.
- Geuk egindakoa beste eragile batzuek egindakoarekin uztartu eta koordinatu behar da, haien lan espezializatua aprobetxatze aldera.

→ Lekuan lekuko taldeentzat

- Langileei Jarduera Humanitarioarekin lotutako zenbait gairi buruzko pres-takuntza ordaindu behar zaie (genero-kontuei eta zeharkako beste zenbait gairi buruzkoa, batez ere).
- Ebaluazioak egiteko aukera eman behar da, egindakoari buruz ikasi eta etor-kizunean hobekuntzak egiteko.
- Taldeen jarduerak Nazio Batuen Erakundeak koordinatutako sisteman uztar-tzeko ahalegina egin behar da; halaber, gure Jarduera Humanitaria jasoko duen herrialdeko gobernuaren ekinbideak ere aintzat hartu behar dira.
- Errefuxiatuak beren jaioterrira itzultzeko estrategiak diseinatu behar dira, eta horretan, herritarren aberriratzeko parte hartzen duten eskualde- nahiz estatu-mailako bulegoekin bat eginik jardun behar da.
- Lekuan lekuko herrialdeen mendekotasun-egoerekin amaitzeko, jarrera asis-tentzialistek sarri samar suntsitutako gizarte-sareak indartu behar dira.
- Lekuan lekuko erakundeak indartu behar dira, gure ekinbideak hobetzeko, eta bestalde, lan-taldeak osatzean, kontuan hartu behar dira alderdi identi-tarioak.
- Lekuan lekuko langileei prestakuntza eman behar zaie, garrantzi handiko lan-postuak lor ditzaten.
- Iparraldeko aliatuei lekuan lekuko lanak eman behar zaizkie, planifikazioetan parte hartu eta denek elkarrekin gogoeta egin dezaten. Emaileek ere parte hartu behar dute Jarduera Humanitarioan, eta hortaz, beharrezkoa da denek talde berean lan egitea, elkarri laguntzeko. Iparraldeko erakunde eta taldeak ezin dira hartu finantzaketaz arduratzen diren eragile soiltzat.

Bibliografía

- Askoren Artean.(2013). *La realidad de la ayuda 2012: Una evaluación independiente de la ayuda y las políticas de desarrollo en tiempos de crisis*. Madrid: Intermon Oxfam.
- Gatazkei eta Jarduera Humanitarioari buruzko Ikerketetarako Institutua-IECAH. (2012). *La AH en 2011: tocando fondo. Informe del Observatorio de la AH*. Madrid: IECAH.
- IECAH & Intermon-Oxfam. (2010). *La iniciativa de la GHD en la Cooperación Descentralizada Pistas para mejorar la AH de las Comunidades Autónomas*. 5. txostena.
- MAEC-SGID, (2012). *Documento de seguimiento del PACI 2011*. Madrid: MAEC.
- MAEC-SGID, (2011). *Documento de seguimiento del PACI 2010*. Madrid: MAEC.
- MAEC-DGPOLDE, (2010). *Documento de seguimiento del PACI 2009*. Madrid: MAEC.
- MAEC-DGPOLDE, (2009). *Documento de seguimiento del PACI 2008*. Madrid: MAEC.
- MAEC-DGPOLDE, (2008). *Documento de seguimiento del PACI 2007*. Madrid: MAEC.
- Oxfam, (2012). *Crisis en un nuevo orden mundial. Un desafío para la AH*. Informe 58.
- Rey, F. & Núñez, J.A. (2013). *La AH en 2011-2012: tocando fondo. Informe del Observatorio de la AH*. Madrid: IECAH.

